


**SANTA KATALINA ZUBIA**  
F MAILA**SANTA KATALINA, Z.G.**

Egilea eta data: Antonio Cortazar; 1869

**Deskribapena**

1813an suntsitu zen zubi zaharra zurezko eraikuntza omen zen, eta, gune horretan, harresiez kanpo zegoen auzo baten eta eliza baten izena hartu zuen. 1819an Ugartemendiak beste zubi bat eraiki zuen, hau ere zurezkoa, eta, geroago Mariano J. de Lascurain arkitektoak 1836an proiektatu zuen beste zubi bat eraiki zen. Hiria azkarraren ondorioz, beste zubi bat eraiki behar izan zen. Antonio Cortazar arkitektoak 1869an estilo neoklasikoan diseinatu zuen zubi hori, eta 1872ko ekainean zabaldu zen. Hasiara batean 12 metroko zabalera eta bost begi zituen. Zubi berri hori aurreko zubiekiko zertxobait lekuz aldatu zen gaur egungo Askatasunaren Hiribidearekin lerrotzeko. Frantzia Pasealekua osatu eta ibaia ubideratu ostean, bosgarren zubi ezabatu zen. Zubiaren zimendatzea pilotaje bidez egin zen eta hormigoizko gangekin, harlanduarekin eta harlangaitzezko estribuekin eraiki zen –arrosa kolorekoa da tinpanuetan eta grisa inpostetan, estribuetan eta zubi pilareetan–. 1924an, Juan Machimbarrena ingeniariak 25 metroko zabalera arte zabaltzea proiektatu zuen, betiere jatorrizko itxurari eutsita, material berdinen estaldurarekin, Mutrikuko harlanduarekin, Ereñoko kareharri gorriarekin eta marmol gorriarekin. 1978an, kolektore berriaren eraikuntzak zubi zabaltzea ekarri zuen. Oro har, jatorrizko konposizioari eutsi zaio berritze lanetan.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berriazko babes erregimena:
  - A.- Babestu gabeko elementuak: ez.
  - B. Elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak (harlandua eta harlangaitza).
  - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: babesak, obra zibilaz gain, karelak, luminariak, armariak, zubi bularrak eta zubiaren jatorrizko gainerako elementuak hartzen ditu.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.